



4. ATALA: ERRALDOI EGILEAK

KARTA DIDAKTIKOA

LABURPENA

	Jarduerak	Titulua	Helburua	Baliabideak
Hasiara fasea	1. Jarduera	Zer dakigu erraldioen inguruan?	Erraldoi egileen inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.	Ordenagailua Proiektorea I. Eranskina: Erraldoiaren atala.
	2. Jarduera	Bai, esan? Erraldoiak	Erraldoi egileen lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.	Ordenagailua Proiektorea Bideopodkasta
Garapen fasea	3. Jarduera	Euskal Herriko zer erraldoi ezagutzen ditugu?	Euskal Herriko erraldoiak ezagutzea.	II. Eranskina: Erraldioen zerrenda. III. Eranskina: Ikasleek bete beharreko txantiloila IV. Eranskina: Memoria jolasa
Ekoizpen fasea	4. Jarduera	Erakusketa prestatu	Aurreko txantiloian jasotako argazkiak markoetan jarri eta ikastetxearentzako erakusketa prestatzea izango da.	V. Eranskina: Marko eta eskulan ereduak.
	5. Jarduera	Museoa eskolan!	Museoa muntatu eta bisitariak jasotzeko prestatzea izango da.	

* Karta didaktiko hau proposamen bat da. Irakasle bakoitzak bere ikasgelara zein ikasleen interesetara moldatzeko aukera du

MUINA

Helburuak

- Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako erraldoi egile lanbidea aitzakitzat hartuta, Euskal Herriko erraldoien bilduma egin eta ikastetxera zabalduko den erakusketa bat egitea izango da helburua.
- Espezifikoak
 - Euskal Herriko erraldoiak ezagutzea.
 - Argazkilaritzaren inguruan gehiago esperimentatzea.
 - Erakusketa prestatzea.
 - Ardurak betetzea.
 - Helburuak lortzeko taldean lan egitea.

Azken xedea edo ekoizpena

- Azken xedea izango da gela guztiaren artean ikastetxeko beste kideentzako argazki erakusketa bat sortzea Euskal Herriko erraldoiak irudikatzen duten argazkiekin.

Ikasle taldea

- Bigarren ziklorako pentsatuta dagoen karta didaktikoa da, printzipioz. Hala ere, karta didaktikoaren amaieran gainontzeko zikloetara egokitzeko proposamenak biltzen dira.

KARTA DIDAKTIKOA

Lehenengo fasea

1. jarduera → Zer dakigu erraldoi egileen inguruan?

- Helburua: Erraldoi egileen inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.
- Proiektorea baliatuz, erraldoi baten atal bat erakutsiko dizkiegu ikasleei. Asanbladan eserita, argazkian ikusten dutenaren inguruko elkarrizketa bat hasiko dugu. Hona hemen elkarrizketa hasteko galdera gidari batzuk: Zer ikusten duzue argazkian? Zer izan daiteke? Zeren parte da ikusten duzuen hori?...

Irakaslearentzat oharra:

- Jarduera hau aurrezagutzak pizteko besterik ez da. Informazio asko ez dute izango, eta gure ardua izango da elkarrizketa bideratzea pistak emanaz. Hala ere, interesgarria da ezjakintasun hori ere balioan jartzea eta horren inguruan hausnartzea. Ezjakintasun hori gehiago jakiteko irrika pizteko erabiliko dugu.
- Jarduera hau egiteko materiala eranskinetan aurkituko duzue.

2. jarduera → “Bai, esan? Erraldoi egileak”

- Helburua: Erraldoi egileen lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.
- Bai, esan? Bideopodkasta ikusiko dugu. Lehenengo jardueran landutakoarekin eta bideopodkasteen jasotako informazioarekin lanbidean gehiago murgilduko gara. Jasotako informazioan ikasleei interesa piztu dien gaiak oinarri hartuta ikasleak hausnarketara bideratuko ditugu eta lanbidearen inguruko ondorioak ateratzera bultzatuko ditugu

Irakaslearentzako oharra:

- Elkarrizketa horretan irakasleak hainbat input eman beharko ditu helburu komun batzuetara iristeko. Atera behar diren ondorioetako batzuk hauek dira:
- **Sormenaren garrantzia.** Lanbide honen osagai garrantzitsu bat sormena da. Buruan duzun hori errealitate bihurtzen duzu, buruan duzun horretatik abiatuta sortzen dira pertsonaiak.
- Gainera, erraldoiek beste mundu batera eramateko gaitasuna eduki dezakete, une batez zu zeu izan beharrean jendeak erraldoi bat ikusten baitu, mugitzen den pertsonaia bat. Gainera, mugimendu horren ondorioz, erraldoiak pertsonen ezaugarri bat berenganatzen dituzte, beraz, erraldoiak pertsonak izan daitezkeela esan daiteke.
- **Gustuko lekuan aldaparik ez.** Ikusten dugun estruktura eder eta ikaragarri horren atzean izugarrizko lana dago. Lan honek ordu asko eskatzen ditu eta material toxiko askorekin lan egiten da beraz, arriskutsua izan daiteke gure osasunerako. Hala ere, gustuko dugun horri eutsi behar diogu eta gure amets eta nahiengandik borrokatu; betiere gure osasuna arriskuan jarri gabe, horretarako beharrezko neurriak hartuz.

KARTA DIDAKTIKOA

Garapen fasea

3. jarduera→ Euskal Herriko zer erraldoi ezagutzen ditugu?

- Helburua: Euskal Herriko erraldoiak ezagutzea.
- Jarduera honetan ikasleak taldeetan batuko dira eta Euskal Herriko erraldoien zerrenda egin beharko dute. Zerrenda horretan erraldoien izenak eta argazkiak bildu beharko dituzte.
- Zerrenda hau egiteko Memoria jolasa erabiltzea proposatzen dugu. Euskal Herriko erraldoi ezberdinen irudiak zein izenak egongo aurkituko ditugu kartetan. Karta bakoitza bi bider egongo da multzo bakoitzean. Karta guztiak buruz behera jarriko ditugu mahai gainean eta ikasleek txandaka bi karta altxatuko dituzte. Karta bera izanez gero berarentzat hartuko du bikotea, desberdinak diren kasuetan berriro ere mahai gainean utziko dira buruz behera. Modu honetan ikasleak errealdioen mundura hurbilduko dira.
- Zerrenda egin aurretik pare bat aldiz jokatzeari buruzko proposamena.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko duzu Memoria jolasa, erraldoien zerrenda eta ikasleek zerrenda egiteko txantiloia.
- Memoria jolasari dagokionez, eranskinetan aurkituko duzun koadroa bi aldiz inprimatu behar da, erraldoi bakoitzaren irudi bikoitza edukitzeko. Horrez gain, jolasa egiteko zuen herriko erraldoiak kontuan hartzea proposatzen dizkizuegu.

KARTA DIDAKTIKOA

Ekoizpen fasea

4. jarduera → Erakusketa prestatu

- Helburua: Aurreko txantiloian jasotako argazkiak markoetan jarri eta ikastetxearentzako erakusketa prestatzea izango da.
- Jarduera honetan aurreko jardueretan landutakoari forma emango diogu. Horretarako, aurretik zerrendatutako Euskal Herriko erraldoien argazkiak inprimatu eta eskuz taldeka eginiko markoetan txertatuko ditugu.

Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko duzue marko ereduak eta eskulan proposamenak.

5. jarduera → Museoa eskolan!

- Helburua: Museoa muntatu eta bisitariak jasotzeko prest uztea izango da.
- Jarduera honetan denok batera emango diote museoari forma. Argazkiak zintzilikatuko dituzte, gela jantziko dute... finean, gela museo bihurtuko dute. Bitartean aurkezpenaren eguna ere finkatuko dute eta horren deialdia zabalduko dute. Kasu honetan beste eskolako kide batzuei gonbidapena luzatzea proposatzen da, gonbidatu nahi diren taldeen geletara bisita eginez.
- Aurkezpenaren egunean ikasleek harrera egingo diete etortzen diren guztiei eta behin dena hasteko moduan dagoenean, ikasleak euren koadroak aurkezten hasiko dira. Erraldoiaren izena aipatuko dute lehenik, eta erraldoi hau non aurkitu genezakeen ondoren, baita erraldoiaren egilea ere.
- Aurkezpena bukatzen denean, museoa egun batzuetan horrela utziko dugu, nahi duenak bisita egiteko aukera izan dezan.

Karta didaktikoa beste maila batzuetara egokitzeko proposamena

- Karta didaktiko hau bigarren ziklorako prestatuta dagoen arren, beste zikloetara egokitzeko aukera dago. Ziklo baxuagoetarako irakasleak emango duen laguntza eta ikasleei emango dizkieten baliabideak handiagoak izango dira. Adibidez, ziklo baxuagoetarako erabiliko diren trukuak simpleagoak izango dira. Ziklo altuagoetan berriz, trukuak konplikatuagoak izango dira eta emanaldietan bakoitzak izango duen presentzia handiagoa izango da.

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

I. Erraldoiaren atala



KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak





II. Erraldioen zerrenda irakaslearentzat

Erraldioen izena	Erraldioen argazkia
Joshemiguelerico (Iruña)	
Joshepamunda (Iruña)	
Esther Arata (Iruña)	
Manrique (Donostia)	

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak




II. Erraldioen zerrenda irakaslearentzat

Erraldioen izena	Erraldioen argazkia
Karmeli (Donostia)	 Karmeli figurak, Donostia. Emakume baten irudiak, jantzi tradizionala duela, urdinezko jantzi bat eta marrokin koloreko arropa bat, eta buruan zuri koloreko buruko arropa bat. Eskuak elkarrekin helduta ditu.
Don Terecio (Bilbo)	 Don Terecio figurak, Bilbo. Gizona baten irudiak, jantzi militarra duela, beltzezko jantzi bat eta buruan gorri koloreko buruko arropa bat. Eskuak elkarrekin helduta ditu.
Doña Tomasa (Bilbo)	 Doña Tomasa figurak, Bilbo. Emakume baten irudiak, jantzi militarra duela, marrokin koloreko jantzi bat eta buruan beltz koloreko buruko arropa bat. Eskuak elkarrekin helduta ditu.
Zumalakarregi (Bilbo)	 Zumalakarregi figurak, Bilbo. Gizona baten irudiak, jantzi militarra duela, urdinezko jantzi bat eta buruan gorri koloreko buruko arropa bat. Eskuak elkarrekin helduta ditu.

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

II. Erraldioen zerrenda irakaslearentzat

Erraldioen izena	Erraldioen argazkia
Isabelita (Tolosa)	
Neskatila (Tolosa)	
Domenjon González de Andia (Tolosa)	

OHARRA: Lanketa hau egiterakoan zuen herriko erraldoiak kontuan hartzea proposatzen dizkizuegu.

Ondorengo esteka hauetan erraldoi desberdinen berri izan dezakezue:

- [Erraldoi dantzariak eta dantzari erraldoiak — dantzan.eus](https://dantzan.eus)
- [Gigantes, Cabezudos y Kilikis - Orriak](#)
- [Gigantes y cabezudos de Tolosa: los más queridos y los más temidos | Tolosa Turismoa](#)

KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

IV. Memoria jolasa



Isabelita (Tolosa)



Don Terecio (Bilbo)




Manrique (Donostia)



Joshemiguelerico
(Iruña)




Esther Arata (Iruña)



Zumalakarregi (Bilbo)




Doña Tomasa (Bilbo)



Domenjon González
de Andia (Tolosa)



Neskaitilla (Tolosa)



Karmeli (Donostia)





Joshepamunda
(Iruña)


KARTA DIDAKTIKOA



Eranskinak

V. Markoa eta eskulan eredua









© EITB MEDIA

